

EH Bildu Amurriok Udaltzaingoaren lana erregulatzearen eta hurbileko polizia-eredu baterantz pausoak ematearen alde egiten du

Araudi bat sortzea proposatu du baita Herritarren Segurtasunerako arlo bat sortzea

Iñaki Ibarluzea: “bizikidetza harmonikorako funtsezko zerbitzua hobetu nahi dugu”

Amurrio. 2021-05-14. EH Bildu Amurriok proposamen bat erregistratu du udalerriri eman nahi zaion Udaltzaingoaren ereduari buruz eztabaidatzeko. Amurriok Udaltzaingoko 14 agente ditu, baina ez du gorputzaren funtzionamendua arautzen duten irizpideak ezartzen dituen ordenantza edota erregelamendurik. Horregatik, EH Bilduk mozio bat erregistratu du, eta, mozio horretan, alde batetik, araudi bat egitea eta, bestetik, Herritarren Segurtasunerako arlo bat sortzea planteatzen du.

Berariazko arlo hori gainerako batzordeek duten maiztasun berarekin deituko litzateke eta udaltzaingoaren arduradunak parte hartuko luke. Era berean, parte hartzeko gune bat sortu nahi da, gizarte-eragileek eta erakundeek arrisku-egoerak antzemateko eta prebentzio-jarduerak diseinatzeko asmoz. Parte hartzeko foro honen helburuak dira arazoak identifikatzea, lehentasunak zehaztea eta ezarritako udal politiken eraginkortasuna aldi-aldi ebaluatzea.

Proposamen-multzo horren helburua da “hurbiltasuneko” polizia-eredu berri baterantz aurrera egitea. EH Bilduren ustez, eredu hori, hurbilekoa izateaz gain, aurrea hartzean eta prebentzian oinarritu behar da, hartara zigortzeko esku-hartzeak eta isunak murrizteko. “Bizikidetza harmonikoa bilatu behar dugu, hain funtsezkoa den zerbitzu batekin. Horretarako, bizilagunek egoeraren diagnostikoan, jardueren diseinuan eta haien eraginkortasunaren ebaluzioan parte hartzeko prozesua ireki behar dugu. Helburua da herritarrekin batera lan egitea, entzunez, informatuz, heziz, konbentzitu eta, azken batean, hurbileko eta auzotarrentzako udaltzain-eredu bat lagunduz”, zehaztu du EH Bilduren Amurrioko bozeramaileak, Iñaki Ibarluzeak.

Horretarako, EH Bilduren ustez, Udaltzaingoak herritarren iritzia eta gogobetetze-maila ezagutu behar ditu. “Elkarreragin eta lankidetza horretatik guztiok erosoago egongo garen harreman bat sortuko da”, gaineratu du Ibarluzeak.

EH Bildu Amurrio apuesta por regular la labor de la policía municipal de y dar pasos hacia un modelo de policía de cercanía

Ha propuesto redactar un reglamento y crear un área específica de Seguridad Ciudadana

Iñaki Ibarluzea: “buscamos mejorar un servicio esencial para una convivencia armónica”

Amurrio. 2021-05-14. EH Bildu Amurrio ha registrado una propuesta para debatir sobre el modelo de Policía Local que se quiere dotar al municipio. Amurrio cuenta con un total de 14 agentes de la Policía Local pero carece de un reglamento que establezca los criterios que regulen el funcionamiento del cuerpo. Por eso, EH Bildu ha registrado una moción en la que se plantea por un lado, elaborar un reglamento y, por otro, crear un área específica de Seguridad Ciudadana.

Esa área específica se convocaría con la misma periodicidad que el resto de comisiones y participaría la persona responsable. A su vez, se plantea crear un espacio de participación donde los agentes sociales e instituciones puedan detectar situaciones de riesgo y diseñar actuaciones preventivas. Identificar problemáticas, determinar las prioridades y evaluar periódicamente la efectividad de las políticas municipales implementadas son los objetivos de este foro de participación.

Esta batería de propuestas está encaminada a avanzar hacia un nuevo modelo policial “de cercanía y vecinal”. EH Bildu entiende que, además de cercano, ese modelo debe basarse en la anticipación y la prevención para reducir así las intervenciones punitivas y las sanciones. “debemos buscar una convivencia armónica con un servicio tan esencial. Para ello debemos abrir un proceso donde los vecinos y vecinas participen en el diagnóstico de la situación, en el diseño de las actuaciones y en la evaluación de la efectividad de las mismas. Se trata de trabajar junto a la ciudadanía escuchando, informando, educando, persuadiendo, acompañando, en definitiva, un modelo de Policía Local de cercanía y vecinal”, ha detallado el portavoz de EH Bildu en Amurrio, Iñaki Ibarluzea.

Para tal fin, EH Bildu entiende que la Policía Local debe conocer la opinión y el grado de satisfacción de la ciudadanía. “De esa interacción y cooperación surgirá una relación en la que todos y todas estaremos más cómodos y cómodas”, ha añadido Ibarluzea.